sanmarkos
Mankomunitatea

1452579

# SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAREN AKTA
# ACTA DE LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCO

| **AKTA ZK./*ACTA Nº*** | **305/20** | | |
|---|---|---|---|
| **LEKUA/*LUGAR*** | ARANTZAZU HOTELA/HOTEL ARANZAZU<br>Vitoria-Gasteiz 1; Donostia-San Sebastian | | |
| **EGUNA/<br>*DÍA*** | **ORDUA/<br>*HORA*** | **DEIALDIA/<br>*CONVOCATORIA*** | **Deialdi eguna/<br>*Fecha convocatoria*** |
| 2020/10/09<br>*09/10/2020* | Hasiera/inicio: 12:00<br>Amaiera/final: 12:15 | Ez-ohikoa<br>*Extraordinaria* | 2020/10/05<br>*05/10/2020* |

| **BERTARATUAK/ASISTENTES** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. KIDEAK/*VOCALES*** | | | | |
| **UDALA/<br>*AYTO.*** | **KIDEA/<br>*VOCAL*** | **BERTARATUA/<br>*HA ASISTIDO*<br>BAI/SI** | **EZ/NO** | **BOZKAK<br>*VOTOS*** |
| DONOSTIA<br>SAN SEBASTIAN | Aitziber San Román Abete | X | | 23,5 |
| | Marisol Garmendia Beloqui | X | | 23,5 |
| LASARTE-ORIA | David Mateos Jimenez | X | | 6,5 |
| | Jon Antxordoki Rekondo | X | | 6,5 |
| PASAIA | Lore Suarez Linazasoro | X | | 6,5 |
| | Loreto Osa Ocon | X | | 6,5 |
| URNIETA | Jorge Segurado Iriondo | | X | -- |
| | Mikel Pagola Tolosa | X | | 5,5 |
| LEZO | José Ángel Sánchez Gallardo | X | | 5,5 |
| | Miguel Angel Sánchez Antúnez | X | | 5,5 |
| ASTIGARRAGA | Xabier Urdangarin Lasa | X | | 5,0 |
| | Aitor Güemes Oyarbide | X | | 5,0 |
| ERRENTERIA | Bernardo Lemos Taberna | X | | 8,5 |
| | Jose Manuel Ferradas Freijo | X | | 8,5 |
| HERNANI | Martin Aldaya Olasagasti | X | | 6,5 |
| | Mª Coro Echeverria Tolosa | X | | 6,5 |
| OIARTZUN | Eneritz Arbelaiz Sarasti | X | | 5,5 |
| | Agustin Lekuona Irastorza | X | | 5,5 |
| USURBIL | Lur Etxeberria Gurrutxaga | X | | 5,5 |
| | Joxe Mari Iribar Zapirain | X | | 5,5 |
| **2. BESTEAK/*OTROS*** | | **GUZTIRA<br>*TOTAL*** | | **151,50** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| IDAZKARIA/<br>*SECRETARIO* | Xabier Loiola Aristi | ZUZENDARI KUDEATZAILEA<br>*DIRECTORA GERENTE* | Enara Intxausti Zamora |
| KONTU-HARTZAILEA/<br>*INTERVENTOR* | Julian Ortiz Arruabarrena | TEKNIKARI JURÍDIKOA/<br>*TÉCNICA JURÍDICA* | Mirari Arriola Irizar |

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

| GAI ZERRENDA | ORDEN DEL DÍA |
|---|---|
| 1. **Lehendakari karguari uko-egitea** | 1. **Renuncia al cargo de Presidente** |
| 2. **Lehendakari berriaren izendapena** | 2. **Nombramiento de nuevo/a Presidente/a** |
| 3. **Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusirako hiru ordezkarien izendapena** | 3. **Designación de los tres representantes en la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.** |

Jose Manuel Ferradas Freijo, Errenteria udalerriko ordezkaria, elektronikoki konektatu da Batzordearen saiora (bideokonferentzia bidez).

Jose Manuel Ferradas Freijo, representante del municipio de Rentería, se ha conectado electrónicamente a la sesión de la Junta (mediante videoconferencia)

Lehendakariak eskerrak eman ditu Ezohiko Batzar honetara etortzeagatik. Batzar horren helburua kargu berriak izendatzea da, bai Mankomunitatearen Batzarrean, bai GHKko Batzordean Mankomunitatea ordezkatzeko.

El Presidente agradece la asistencia a esta Junta extraordinaria cuyo objeto es el nombramiento de nuevos cargos, tanto en la Junta de la Mancomunidad como para la representación de la Mancomunidad en la Junta de GHK.

**1. Lehendakari karguari uko-egitea**

**1. Renuncia al cargo de Presidente**

Mankomunitateko Lehendakaritza karguari uko egiten diola jakinarazi du Mikel Pagola Tolosak. Baita ere uko egiten dio Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzarrean Mankomunitatea ordezkatzeari.

Mikel Pagola Tolosa comunica su renuncia al cargo de Presidente de la Mancomunidad y su renuncia a ser representante de la Mancomunidad en la Asamblea del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

Marisol Garmendia Beloquik hartzen du saioaren lehendakaritza, Mankomunitateko lehendakari-ordea delako.

Marisol Garmendia Beloqui pasa a presidir la sesión en su condición de vicepresidenta de la Mancomunidad.

**2. Lehendakari berriaren izendapena**

**2. Elección de nuevo/a Presidente/a**

Marisol Garmendiak gai-zerrendako ondorengo puntua azaldu du.

Marisol Garmendia procede a exponer este punto.

San Marko Mankomunitateko Batzarrak 2019ko irailaren 06ko saioan, besteak beste erabaki zuen Mikel Pagola Tolosa izendatzea Mankomunitateko Lehendakari.

La Junta de la Mancomunidad de San Marcos en sesión celebrada el 06 de septiembre de 2019 acordó, entre otros, nombrar a Mikel Pagola Tolosa Presidente de la Mancomunidad.

Karguaren uko egitearen ondorioz, Mankomunitateko Lehendakari berria izendatu

A consecuencia de la renuncia al mismo debe nombrarse un/a nuevo/a Presidente/a

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

behar da Mankomunitateko estatutuetan ezarritako prozedura jarraituz:

de la Mancomunidad, siguiendo el procedimiento establecido en los estatutos de la Mancomunidad:

1. Bere karguaren jabe egin den Batzarreko edozein mahaikide hautagai izan daiteke.

1. Puede ser candidato/a cualquiera de los/las vocales de la Junta que hayan tomado posesión de sus cargos.

2. Edozein mahaikidek proposatu dezake Lehendakari kargurako hautagaitza.

2. Podrá cualquier vocal proponer candidato/a para el cargo de Presidente/a.

3. Aurreikusitako botoen gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia izango da hautatua, Mankomunitateko Estatutuetako 6. artikuluan zehazten denaren arabera.

3. Resultará elegido/a aquel/lla candidato/a que obtenga la mayoría absoluta de votos de acuerdo con lo establecido en el art. 6 de los Estatutos de la Mancomunidad.

Mankomunitateko Lehendakaritzarako Lehendakariordea edo Gordailuzaina aukeratzen bada, postu horiek hautatzeko prozedura bera egingo da ere.

En caso de que se elija a la Vicepresidenta o a la Depositaria para la Presidencia de la Mancomunidad, se seguirá el mismo procedimiento para la elección de dichos puestos.

Horrela, Jon Antxordoki Rekondok Loreto Osa Ocón-en kandidatura proposatu du mankomunitateko lehendakaritzarako.

Jon Antxordoki Rekondo propone la candidatura de Loreto Osa Ocón para la presidencia de la mancomunidad.

Ez da beste hautagairik proposatu eta, ondorioz, saioko lehendakariak Loreto Osa Ocón-en hautagaitza bozkatzera bideratu du.

No se ha propuesto ninguna otra candidatura por lo que la presidenta de la sesión ha sometido a votación la candidatura de Loreto Osa Ocón.

Bozketa burututa, hautagaitza onartu da, aldeko 89,5 botorekin eta 62 abstentziorekin.

Realizada la votación, se ha aprobado la candidatura por 89,5 votos a favor y 62 abstenciones.

Aldeko 89,5 botoak Donostia, Lasarte-Oria, Pasaia, Urnieta eta Lezoko Udaletako ordezkarienak dira; 62 abstentzio-bozkak, berriz, Astigarraga, Errenteria, Hernani, Oiartzun eta Usurbileko ordezkarienak.

Los 89,5 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Lasarte-Oria, Pasaia, Urnieta y Lezo, y los 62 votos de abstención corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Astigarraga, Errenteria, Hernani, Oiartzun y Usurbil.

Loreto Osa Ocón-en kandidaturak botoen gehiengo osoa lortu du (gutxienez 76 bozka lortu behar zituen) eta, beraz, hurrengo ERABAKIA hartu da:

La candidatura de Loreto Osa Ocón obtiene la mayoría absoluta de votos (se requería un mínimo de 76 votos) resultando por tanto adoptado el siguiente ACUERDO:

***Loreto Osa Ocón San Marko Mankomunitateko lehendakaria izendatzea.***

***Nombrar a Loreto Osa Ocón Presidenta de la Mancomunidad de San Marcos.***

Loreto Osa Oconek berariaz onartu du

Loreto Osa Ocón acepta expresamente el

**Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa**
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

Mankomunitatearen lehendakari kargua eta eskertu du beregain adierazitako konfiantza.

cargo de presidenta de la Mancomunidad y agradece la confianza mostrada.

Bilkurako buru izan aurretik, uko egiten dio Mankomunitateko gordailuzain karguari.

Antes de pasar a presidir la reunión renuncia al cargo que ostenta en la actualidad como depositaria.

Ondoren, gordailuzaina aukeratzeko kandidaturak aurkezteari ekin zaio.

Se procede, a continuación, a la presentación de candidaturas para la elección de depositario/a.

Jon Antxordoki Rekondok gordailuzain kargurako Aitziber San Román Abeteren kandidatura aurkeztu du.

Jon Antxordoki Rekondo presenta la candidatura de Aitziber San Román Abete para el cargo de depositaria.

Ez da beste hautagairik aurkeztu.

No se ha presentado ninguna otra candidatura.

Lehendakari-ordeak gordailuzainaren kandidaturaren bozketa egin du.

La vicepresidenta somete a votación la candidatura de la depositaria.

Bozketa burututa, hautagaitza onartu da, aldeko 89,5 botorekin eta 62 abstentziorekin.

Realizada la votación, se ha aprobado la candidatura por 89,5 votos a favor y 62 abstenciones.

Aldeko 89,5 botoak Donostia, Lasarte-Oria, Pasaia, Urnieta eta Lezoko Udaletako ordezkarienak dira; 62 abstentzio-bozkak, berriz, Astigarraga, Errenteria, Hernani, Oiartzun eta Usurbileko ordezkarienak.

Los 89,5 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Lasarte-Oria, Pasaia, Urnieta y Lezo, y los 62 votos de abstención corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Astigarraga, Errenteria, Hernani, Oiartzun y Usurbil.

Aitziber San Román Abete kandidaturak botoen gehiengoa lortu du eta, beraz, hurrengo ERABAKIA hartu da:

La candidatura de Aitziber San Román Abete obtiene la mayoría de votos resultando por tanto adoptado el siguiente ACUERDO:

***Aitziber San Román Abete San Marko Mankomunitateko Gordailuzain izendatzea.***

***Nombrar a Aitziber San Román Abete Depositaria de la Mancomunidad de San Marcos.***

Ondoren, Loreto Osa Ocón izango da bilkurako burua.

A continuación Loreto Osa Ocón pasa a presidir la sesión.

En este momento se ha cortado la conexión de videoconferencia con J.M. Ferradas y debido a las dificultades de reconexión ha seguido vía telefónica los siguientes temas de la reunión.

Momentu honetan J.M. Ferradas-ekin bideokonferentzia konexioa moztu egin da eta birkonektatzeko zailtasunak daudelako telefono bidez jarraitu ditu bileraren hurrengo gaiak.

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

### 3. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusirako hiru ordezkarien izendapena

San Marko Mankomunitateko Batzarrak 2020ko otsailaren 28ko saioan, erabaki zuen Mikel Pagola Tolosa izendatzea Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrean San Markoko Mankomunitateari dagozkion hiru ordezkarietako bat.

Mikel Pagola Tolosak uko egin dio ordezkaritza horri eta, ondorioz, Batzarrak Mankomunitateak Kontsortzioaren Batzarrean dituen hiru ordezkariak izendatu beharko ditu berriro.

Mankomunitateak Kontsortzioan duen ordezkaritzaren arabera (%29ko bozka kopurua), batzarrak zehaztu beharko du zer ordezkarik izango dituen bozka kopuru gehien (gainotzekoen baino bi dezima gehiago izango du; hau da, %9,8, gainontzekoen %9,6-arekin alderatuta).

Erabaki-proposamena egituratzeko, Kontsortzioa eratzeko Hitzarmena laugarren baldintzak aurreikusitako prozedura jarraitu behar da. Prozedura honakoa da:

1. Hautagaiak aurkeztea.
2. Batzarkide bakoitzak bi bozkatu ahal ditu.
3. Hiru hautagai bozkatuenekin proposamena egiten da eta boto gehienak jaso dituenari boto kopuru handiena atxikitzen zaio eta beste biei txikiena, Kontsortzioko Estatutuetako 12.3. artikuluari jarraiki.

Jarraian, izendatutako ordezkari titularren ordezkoak izendatu behar dira. Horretarako, hautagaiek ordezkoen proposamena egingo dute eta bozkatu egingo dira.

Presidenteak hautagaien aurkezpena ireki ondoren, ondorengo hautagaitzak aurkeztu dira:

- Jon Antxordoki Loreto Osa titular gisa aurkezten du, eta Jorge Segurado ordezko gisa.
- Lore Suarezek Marisol Garmendia

### 3. Designación de los tres representantes en la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

La Junta de la Mancomunidad de San Marcos en sesión celebrada el 28 de febrero de 2020 acordó nombrar a Mikel Pagola Tolosa como uno de tres representantes en la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa que corresponden a la Mancomunidad.

Mikel Pagola Tolosa ha renunciado a esta representación, por lo que la Junta deberá designar nuevamente a sus tres representantes en la Asamblea del Consorcio.

En función de la representatividad que la Mancomunidad tiene en el Consorcio, (29% de votos) la Junta determinará cuál de los/las tres representantes tiene mayor cantidad de votos atribuidos (dos décimas más que el resto; es decir, 9,8% frente a 9,6% del resto).

Para conformar la propuesta de acuerdo se debe seguir el procedimiento previsto en la estipulación cuarta del Convenio de constitución del Consorcio que es el siguiente:

1. Presentación de candidatos/as.
2. Cada Juntero/a puede votar a dos de ellos/as.
3. Con los/las tres candidatos/as más votados/as queda conformada la propuesta, correspondiendo al/a la más votado/a la mayor cantidad de votos y a los/las otros/as dos la menor, según lo establecido en el artículo 12.3 de los Estatutos del Consorcio.

Acto seguido, se procederá a efectuar el nombramiento de los sustitutos de los representantes titulares designados y se votarán.

Abierta por el Presidente la presentación de candidaturas, se han presentado las siguientes:

- Jon Antxordoki presenta a Loreto Osa como titular y a Jorge Segurado para la suplencia de la misma.
- Lore Suarez presenta a Marisol

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

aurkeztu du titular gisa, eta bere burua aurkeztu du haren ordezko izateko.

- Eneritz Arbelaitzek hiru hautagai aurkeztu ditu titular gisa: Martin Aldaya, Bernar Lemos eta berea eta Bernar Lemos ordezkoa.

Garmendia como titular y su candidatura para la suplencia del mismo.

- Eneritz Arbelaitz presenta tres candidaturas, Martin Aldaya, Bernar Lemos y la suya propia como titulares, y la de Bernar Lemos como suplente.

Banan banako bozketa egin da eta emaitza ondorengoa izan da:

Se ha realizado votación nominal y el resultado ha sido el siguiente:

| Udala Municipio | Ordezkariak Representantes | Bozkak Votos | Hautagaiak/Candidatos/as | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Marisol Garmendia | Loreto Osa Ocón | Eneritz Arbelaitz | Bernar Lemos | Martin Aldaya |
| Donostia | Aitziber San Román Abete | 23,5 | X | X | | | |
| | Marisol Garmendia Beloque | 23,5 | X | X | | | |
| Lasarte-Oria | David Mateos Jiménez | 6,5 | X | X | | | |
| | Jon Antxordoki Rekondo | 6,5 | X | X | | | |
| Pasaia | Lore Suarez Linazasoro | 6,5 | X | X | | | |
| | Loreto Osa Ocon | 6,5 | X | X | | | |
| Urnieta | Jorge Segurado Iriondo | -- | | -- | | | |
| | Mikel Pagola Tolosa | 5,5 | -- | X | | | |
| Lezo | Jose Angel Sanchez Gallardo | 5,5 | X | X | | | |
| | Miguel Angel Sanchez Antunez | 5,5 | X | X | | | |
| Astigarraga | Xabier Urdangarin Lasa | 5 | | | | X | X |
| | Aitor Güemes Oyarbide | 5 | | | | X | X |
| Errenteria | Bernar Lemos Taberna | 8,5 | | | X | | X |
| | Jose Manuel Ferradas Freijo | 8,5 | | | | X | X |
| Hernani | Martín Aldaya Olasagasti | 6,5 | | | | X | X |
| | María del Coro Echeverria Tolosa | 6,5 | | | | X | X |
| Oiartzun | Eneritz Arbelaitz Sarasti | 5,5 | | | | X | X |
| | Agustin Lekuona Irastorza | 5,5 | | | | X | X |
| Usurbil | Lur Etxeberria Gurrutxaga | 5,5 | | | | X | X |
| | Joxe Mari Iribar Zapirain | 5,5 | | | | X | X |
| **GUZTIRA TOTAL** | | **151,5** | **84** | **89,5** | **8,5** | **53,5** | **62** |

Ondorioz, ondorengoak dira bozken emaitzak, bozka kopuru gehienetik gutxienera:

1. Loreto Osa Ocón: 89,5 boto
2. Ernesto Gasco Gonzalo: 84 boto
3. Martin Aldaya Olasagasti: 62 boto
4. Bernar Lemos Taberna: 53,3 boto
5. Eneritz Arbelaitz Sarasti: 8,5 boto

Por consiguiente, los resultados de la votación son los siguientes, según el orden descendiente de votos:

1. Loreto Osa Ocón: 89,5 votos
2. Marisol Garmendia Beloqui: 84 votos
3. Martin Aldaya Olasagasti: 62 votos
4. Bernar Lemos Taberna: 53,3 votos
5. Eneritz Arbelaitz Sarasti: 8,5 votos

Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

Beraz, San Markoko Mankomunitateko Batzarrak ondorengoa ERABAKI du:

***Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari dagokion Batzar Nagusian Mankomunitateko ordezkari bezala hurrengo batzarkideak izendatzea:***

1. ***Loreto Osa Ocón***
2. ***Marisol Garmendia Beloqui***
3. ***Martin Aldaya Olasagasti***

***Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko Estatutuek 12.3. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Loreto Osa Ocon-i Batzar Nagusian Mankomunitateko ordezkariei atxikitako botorik gehienak; hau da, %9,8, gainontzekoen %9,6-arekin alderatuta.***

Ondoren, izendatutako ordezkari titularren ordezkoak izendatu dira.

Horretarako, Loreto Osak (Jorge Segurado) eta Marisol Garmendiak (Lore Suárez) aipatu dituzten ordezkoez gain, Martin Aldayak Bernar Lemos aurkeztu du ordezka dezan.

Proposamena onartu egin da, batzarkideek titularren izendapenak egiteko emandako botoak ordezkoak izendatzeko ere berretsi baitituzte.

Hortaz, San Markoko Mankomunitateko Batzarrak ondorengoa ERABAKI du:

***Hurrengo batzarkideak ordezkari titularren ordezko bezala izendatzea:***

***1. Jorge Segurado Iriondo, Loreto Osa Ocónen ordezkoa***
***2. Lore Suarez Linazasoro, Marisol Garmendia Beloquiren ordezkoa***
***3. Bernar Lemos Taberna, Martin Aldaya Olasagastiren ordezkoa***

Jorge Segurado Iriondo batzarrean ez dagoenez, bere izendapena batzarraren aurrean onartzera baldintzatua geratu da.

Por lo tanto, la Junta de la Mancomunidad de San Marcos, ACUERDA:

***Designar representantes de la Mancomunidad en la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa a los siguientes miembros de esta Junta:***

1. ***Loreto Osa Ocón***
2. ***Marisol Garmendia Beloqui***
3. ***Martin Aldaya Olasagasti***

***De conformidad con lo establecido en el artículo 12.3 de los Estatutos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, corresponderá a Loreto Osa Ocón la mayor cantidad de votos atribuidos en la Asamblea General a los representantes de la Mancomunidad; es decir, 9,8% frente a 9,6% del resto.***

A continuación, procede efectuar el nombramiento de los sustitutos de los representantes titulares designados.

Para ello, aparte de los suplentes ya mencionados para Loreto Osa (Jorge Segurado) y Marisol Garmendia (Lore Suárez), Martin Aldaya ha presentado a Bernar Lemos para su suplencia.

Se aprueba la propuesta al ratificar los junteros que los votos emitidos para los titulares se emiten también para el nombramiento de sus suplentes.

Por lo tanto, la Junta de la Mancomunidad de San Marcos, ACUERDA:

***Designar a los siguientes miembros de la Junta suplentes de los representantes titulares.***

***1. Jorge Segurado Iriondo, suplente de Loreto Osa Ocón***
***2. Lore Suarez Linazasoro, suplente de Marisol Garmendia Beloqui***
***3. Bernar Lemos Taberna, suplente de Martin Aldaya Olasagasti***

Al no estar Jorge Segurado Iriondo presente en esta sesión su designación queda condicionada a su aceptación ante esta Junta.



Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco

sanmarkos
Mankomunitatea

1452586

## 4. Galde-eskeak.

Mikel Pagola Tolosak eskerrak eman dizkio Loreto Osari lehendakari kargua onartzeagatik.

Bestalde, adierazi du Jorge Seguradok, gaur etorri ez denak, GHK Batzordeko ordezkari kargua onartzea falta dela Batzordearen hurrengo bileran.

Halaber, Mikel Pagola Batzordeko kide gisa agurtzen da. Urnietako Udalak bere ordezkoaren izena jakinaraziko du Mankomunitateko batzarkide gisa, hurrengo batzar-bilkura baino lehen.

Batzar-kideei eskerrak eman dizkie Mankomunitatearen kudeaketan laguntzeagatik, lehendakari karguan egon den bitartean.

Azkenik, eskerrak eman dizkie bai Mankomunitateko taldeari, batez ere kudeatzaileari eta teknika juridikoari, bai idazkariari eta kontu-hartzaileari, emandako laguntza eta aholkularitzagatik.

Azkenik, lehendakariak jakinarazi du Batzordearen hurrengo ohiko bilera azaroaren 13an izango dela.

9:00etan hasteko eskatu dute batzarkideek.

## 4. Ruegos y preguntas.

Mikel Pagola Tolosa agradece a Loreto Osa haber aceptado el cargo de Presidenta.

Por otra parte indica que queda pendiente que Jorge Segurado, que no ha asistido hoy, acepte su cargo como representante en la Junta GHK en la próxima reunión de la Junta.

Mikel Pagola se despide asimismo como miembro de la Junta. El ayuntamiento de Urnieta comunicará antes de la próxima sesión de Junta el nombre de su sustituto como juntero en la Mancomunidad.

Agradece a los miembros de la Junta su colaboración en la gestión de la Mancomunidad durante el período en el que ha ocupado el cargo de Presidente.

Por último, da las gracias asimismo tanto al equipo de la Mancomunidad, especialmente a la gerente y a la técnica jurídica, como al Secretario y al Interventor por su ayuda y asesoramiento.

Finalmente, la Presidenta comunica que la próxima reunión ordinaria de la Junta se celebrará el 13 de noviembre.

Los miembros de la Junta solicitan que la hora de inicio sea a las 9:00.

## Akta ixtea

Lantzeko beste gairik izan ezean, LEHENDAKARITZAK saioa amaitutzat jo du buruan aipatutako eguneko 12:15 direnean.

Idazkari naizen aldetik, akta 1452579tik 1452586ra zenbakiak dituzten orri ofizialetan jaso eta berrespena ematen diot Lehendakariaren oniritziaz.

## Cierre de acta

Sin más asuntos que tratar, la PRESIDENCIA levanta la Sesión, siendo las 12:15 expresado en el encabezamiento.

Levanto la presente acta en las hojas oficiales números 1452579 al 1452586 de todo lo cual doy fe, con el visto bueno del Presidente.

EL SECRETARIO/IDAZKARIAK

LA PRESIDENTA/ LEHENDAKARIAK

sanmarko
Gasteiz, 10. 20018 Donostia
Tel 943 214 977

Diligentzia: 2020/11/13ko batzarrean, 6. orriaren bukaerako akatsa zuzendu da Ernesto Gasco Gonzalo ordez Manuel Sarmendia Belogui izan behar du

Diligencia: en la sesión de 13/11/2020 se ha corregido el error al final de la página 6: en lugar de Ernesto Gasco Gonzalo debe decir Manuel Sarmendia Belogui



Zenbakidun papera. Euskal Autonomia Erkidegoa
Papel numerado. Comunidad Autónoma del País Vasco